



# ESKOLAKO AGENDA 21

## ARRATIAN



2012-2013 ikasturteko

Memoria Txostena

<b>0. SARRERA</b> .....	3
<b>1. IRAILA: IKASTURTE HASIERA</b> .....	6
<b>2. URRIA ETA AZAROA: SENTSIBILIZAZIOA ETA MOTIBAZIOA</b> .....	6
<b>3. ABENDUA-OTSAILA: DIAGNOSTIKOA</b> .....	8
<b>5. OTSAILA-MAIATZA: EKINTZA PLANA</b> .....	9
<b>8. EKAINA: ARRATIAKO ESKOLEN ARTEKO TOPAKETA, UDAL FOROAK</b> .....	11
<b>8.1. Arratiako eskolen arteko foroko emaitzak, PROPOSAMENAK ETA KONPROMISOAK (Igorren, 2013-06-19)</b> .....	11
<b>8.2. Dimako udal foroan ikasleek alkateari egindako proposamenak (13-06-12)</b> .....	12
<b>8.3. Igorreko udal foroan ikasleek alkateari egindako proposamenak (13-06-19)</b> .....	13
<b>9. EKAINA: IKASTURTE AMAIERA!</b> .....	14

## 0. SARRERA

Udalaren laguntzarekin duela **ZORTZI** urte hasi ziren Eskolako Agenda 21 proiektuan Dimako Ugarana eta Igorreko Inazio Zubizarretako ikastetxeak. Arratiako Institutuarentzako ordea, aurtengoa **BOSTARREN** ikasturtea izan da.

Aurreko urteetan ura, hondakinak, aztarna ekologikoa, kontsumo iraunkorra, bioaniztasuna eta mugikortasunaren gaiak landu ziren eta azken bi ikasturte hauetan hiru ikastetxeek **ELIKADURA** gaia landu dute.

Prozesu honen garapenerako, urte guzti hauetan bezala, Arratiako Udalen Makomunitateak **Ondoan, S.Coop. Aholkularitza enpresa** kontratatu du aurten ere.

Gure zeregin nagusia, Ikastetxea eta Udalaren arteko zubi lana egitea izan da, Ikastetxeari eta Udalari prozesua errazago egiteko laguntza teknikoa eskaintzea, alegia. Memoria honen bitartez, Ikastetxeekin egindako lana azaldu nahi dugu eta era berean sortu ditugun materialak aurkeztu. Sortutako material guztiak **Eranskin** gisa txertatu ditugu Memoria honekin batera aurkezten dugun karpetan.



Lehen aipatu bezala, Arratiako ikastetxeetan **ELIKADURA GAIA JORRATU DA.**

### **ELIKADURAREN INGURUAN IKASTURTEAN LANDUTAKO ZENBAIT GAI**

Elikadura gizakiak dituen energia beharrak asetzeko egiten den elikagaien barneratze prozesua da. Baina elikagai guztiek onura berdinak ekartzen al dituzte gizakiontzat? Barneratzen ditugun elikagaien ezaugarrien arabera onura gehiago ala gutxiago izango ditugu gure osasunean.

#### **ELIKADURA OSASUNTSUA**

Gero eta handiagoa da gizartean gai honekiko dagoen arduraren, baina zehatz-mehatz zertan datza elikadura osasuntsuaren kontzeptuak?

**Pertsona oro osasuntsu mantentzeko, nahitaezko elikagaiak eta energia beharrak asetzen dituen elikadura mota da.**

Hau da, elikagaien ezaugarrien arabera talde bakoitzeko produktuak kantitate eta maiztasun batzuetan jaten direnean lortzen den elikadura mota da.



Baina, osasuntsu elikatzeaz gain, gizakiok arreta jarri behar diogu elikagaiak ekoizteko moduari eta elikagaien jatorriari ere.

### ELIKAGAIEN JATORRIA ETA AZTARNA EKOLOGIKOA

Munduko elikagai beharrak asetzeko erabiltzen diren teknika gogorrek desoreka sortzen dute ingurumena eta gizakiaren artean.

Gizakiak orain arte ingurumenean sortu dituen presioak murriztu eta ekiditeko gaur egungo irteera **“ekoizpen jasangarria”** da. Ekoizpen mota hauetan erabiltzen diren teknikak onura biologikoak ekartzen dituzte eta ondorioz naturarentzat kaltegarriak diren sustantzia kimikoen erabilera saihesten da.

Aurtengo gai nagusiaz gain, ikastetxeek aurreko urteetan hartutako konpromisoekin ere jarraitu dute: **papera, ikasmaterialak, elikagaien kontsumoa, energiaren kontsumoa, hazitegiaren mantentzea, e.a.**

### URTEAN ZEHAR BILERA EZBERDINETAN HARTU DUGU PARTE:

- Ingurugelak dinamizatutako koordinazio bilerak izan ditugu ikasturte guztian zehar Bilboko Ingurugelako egoitzan. Bilera hauetan Ingurugelako ordezkaria, ikastetxeetako EA21eko koordinatzaileak eta lantalde teknikoak elkartu gara.

- Ikasturte guztian zehar ere, Aholkularitza Etxea eta Ikastetxeen arteko batzarrak ospatu ditugu, sortzen joan diren beharrei erantzuna eman eta kronograma eta fase ezberdinak behar diren bezala betetzen joateko.
- Berdina egin dugu Arratiako Iraunkortasun teknikariarekin, ikasturte osoan zehar teknikaria eta Aholkularitza Etxearen harremana jarraia izan da.

**2012-2013 ikasturtean zehar egindako lana azalduko dugu ondoren:**

## 1. IRAILA: IKASTURTE HASIERA

Fase honetan **Ingurumen Batzordearen eraketa antolatzen da**. Batzar hauetan besteak beste honako gaiak lantzen dira:

- Ikasturtean zehar egingo diren lanen aurkezpena, planingaren aurkezpena.
- Eskola eta herriko diagnostikoaren aurkezpena.
- Hartutako konpromisoen aurkezpena.
- Ekintza planaren aurkezpena.
- Udal foroan Alkateari egingo zaizkion proposamenen eztabaida.

## 2. URRIA ETA AZAROA: SENTSIBILIZAZIOA ETA MOTIBAZIOA

Aholkularitza Etxeko teknikariek ikastetxeetara bisitak egiten dituzte ikasturtean zehar Aholkularitza egiteko diren lanak zeintzuk izango diren azaltzeko. Aurten ere **ELIKADURA** gaia jorratu dute Arratiako hiru ikastetxeek. Haserako bilera hauetan honakoa lantzen da:

- Sentsibilizazio fasea nola bultzatu (**ikus SENTSIBILIZAZIOA eranskina**).
- Ikastetxe eta herriko diagnostikoa egiten hasteko planifikazioa.
- Martxoan udal ibilbideak eta eskolako tailerrak nola antolatu.
- Ekaineko Buletin Digitala antolatu.

Aurreko ikasturtean bezala, aurten ere Igorreko eta Dimako ikasleek **UDALETXERA BISITA** egin dute kurtso hasieran. Bisitaren helburuak Udal instalakuntzak, zerbitzuak, e.a. ezagutzea da, hau da, Udala ikastetxeari gehiago gerturatzea. Ikasleek Alkatearekin solasaldia izan dute eta aurreko ikasturteetan luzatutako eskaera eta konpromisoak gogorarazi dizkiote. Esperientzia oso polita izan da.





### *Igorreko eta Dimako Udalera bisitako argazkiak*

Ikasturte honetan Arratiako produktuak erosteko aukerarik badagoen ala ez jakiteko asmoz, **UDAL IBILBIDEAK** antolatu dira Igorreko Ignazio Zubizarreta, Dimako Ugarana ikastexea eta Arratiako Institutuan. Ibilbide huen bitartez ikasleek herriko dendetako **elikadura eskaintzaren azterketa bat** egin dute. Zentzu honetan, ekintza hau **PRAKTIKA ON** bat izan dela azpimarratu behar da, beste herrietarako eredugarria izan daitekeena. Udala, hiru ikastetxeak, herriko merkatariak eta Arratiako IGITIE ekoizleekin elkarlanean eta koordinatuta ekintza bat garatu da aurten. Ikasleek herriko dendetan ia bertako elikagaiak erosteko aukerarik baduten hausnartu dute eta Arratiako eta Bizkaiko produktuak gometxen bitartez identifikatu dituzte. Egindako lan guztia Begitu aldizkariaren bitartez komunikatu dute eta bertan Arratiako zein herrietako elikagaiak erosi daitezkeen eta zein dendatan komunikatu da. ***Era honetan, Eskolako Agenda 21 proiektuaren zeharkakotasuna inoiz baino gehiago azpimarratu daiteke: ekonomia, ingurumena eta gizarte aldagaiak ikutzen direlarik praktika on honen bitartez.***

Aholkularitza Etxea izan da Praktikoia on hau aurrera eramateko arduraduna Arratiako Mankomunitateko teknikariarekin elkarlanean. Guzti hau egiteko **ibilbideak egiteko fitxak** prestatu ditu eta ondoren EA21eko koordinatzaileei helarazi eta aurkeztu zaizkie. Material honekin batera ikastetxe bakoitzak, Aholkularitza Etxearen laguntzarekin, beren ikasleekin ibilbideak antolatzeko ardura hartu dute. ***(ikus IBILBIDEAK eranskina).***

### 3. ABENDUA-OTSAILA: DIAGNOSTIKOA

Aholkularitza Etxeak aurreko ikasturtean egindako Igorre eta Dimako **Elikaduraren inguruko Diagnostiko tekniko berdinak erabili ditu ez baita aldaketa handirik egon aurreko ikasturtetik** eta hala erabaki delako ikastetxeekin. Diagnostiko hauetatik lehen ondorio batzuk atera dira eta hauek izan dira lehentasunezko jarduera esparruen orientatzaileak eta erreferenteak ikasturte amaieran ikasleek Udalari eskaerak egiterako garaian.



Otsailean, Eskolako Agenda 21eko ikastetxeetako koordinatzaileei **Elikaduraren Unitate Didaktikoa** helarazten zaie, hau ere, aurreko ikasturtean landutako berdina. Irakasleari zuzenduta dagoen Material Didaktikoan elikadura osasuntsua eta elikagaien ekoizpen sistema ezberdinak eta hauek ingurumenarekiko duten eragina zein den, e.a. azaltzen da. Horrekin batera, lanerako fitxa batzuk eranstean dira ikasleekin batera elikadura gaia lantzeko eta eskolako diagnostikoa egiten laguntzeko. **(ikus SENTSIBILIZAZIOA eranskina).**





## 5. OTSAILA-MAIATZA: EKINTZA PLANA

Fase honen barruan ekintza ezberdinak burutzen dituzte ikastetxeek, horien artean, honakoak bereiz ditzakegu: **Udal ibilbideak** martxoan maiatza bitartean egiten dira. Ibilbideak egiteko Aholkularitza Etxeak prestatutako materiala erabiltzen da.



Dimako Ugarana eta Igorreko Inazio Zubizarretako ikastetxeetako ikasleak **bertako ekoizle bat bisitatzea** joan dira. Irteeran elikagaien ekoizpen prozesua gertutik ezagutzeaz gain bertakoak eta sasoikoak diren elikagaiak ezagutzeko aukera ere izan dute.



Fase honetan ikastetxeek Eskolako Diagnostikoaren ondorioz eta ikasturtean zehar burututako ekintzen ondorioz zenbait konpromiso hartzen dituzte eta **ekintza plan bat diseinatzan dute konpromiso horiek martxan jartzeko.**

Diagnostiko tekniko eta ibilbide eta jarduera tekniko - elikadura tailerretan ateratako ondorioak oinarritzat izan da, **ikasleak herriko ekintza plana prestatzen hasten dira.**

**Aurten ere Jardunaldi teknikoak izan dituzte hiru ikastetxeek. Aurtengo jardunaldi teknikoetan dietista bat etorri da eta honako gaiak jorratu dira:**

- Elikadura osasuntsua, zertarako?
- Gaur egungo egoeraren hausnarketa: gehiegikeriak eta gabeziak
- Elikadura osasuntsu baterako osagaiak
- Elikagaien arteko proportzio egokia: piramide nutrizionala.
- Eguneko menua antolatzen
- Etxeko Elikadura orekatua eta elikaduraren trastornoak
- Anorexia, bulimia.
- Janari goxo eta osasuntsuen beharra. Sukaldaritza.



## 8. EKAINA: ARRATIako ESKOLEN ARTEKO TOPAKETA, UDAL FOROAK

### 8.1. Arratiako eskolen arteko foroak emaitzak, PROPOSAMENAK ETA KONPROMISOAK

(Igorren, 2013-06-19)

Arratiako eskolen arteko Foroa Igorreko Udaletxean antolatzen da ekainaren 19an eta Igorre eta Dimako ikastetxeetako ikasleek partehartzen dute. *(ikus FOROAK eranskina).*

Lan dinamika baten ostean ikastetxe bakoitzak konpromiso batzuk eta uUdalari egin nahi dizkieten eskaerak aurkeztu dizkie beste ikaskideei:

ESKOLEN ARTEKO UDAL FOROA. IGORRE 13-06-19		
IKASTETXEA	PROPOSAMENAK	KONPROMISOAK
ARRATIA INSTITUTUA	<ul style="list-style-type: none"> <li>Mugikortasun egunean elikadura gaiarekin lotuta herrian zerbait antolatu.</li> <li>Bertako produktuak promozionatu</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Aurreko urtean bazkari hondakinak bideratzeko hartutako konpromisoa ez dute gauzatu ez bait dute bideragarria ikusten.</li> <li>Datorren ikasturtera begira hartzen dituzten konpromiso nagusiak hondakinen birziklapena egitea eta bertako eta sasoiko produktuen aldeko apustua egitea dira.</li> </ul>
INAZIO ZUBIZARRETA	<ul style="list-style-type: none"> <li>Dendetan leku bat utzi bertako produktuak kokatzeko.</li> <li>EA21 jaia antolatzean Udalaren laguntza izatea (frutak, e.a. erosteko).</li> <li>Herrian zehar antzinako ibilbideak berreskuratu.</li> <li>Artea eta Igorre bitartean bidegorria garatu.</li> <li>Udalak Frackingaren aurkako jarrera azaltzea.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Fruta eta bertako produktuak kontsumitzeko konpromiso hartu dute, hau da, jolasaldian egunero jango dute fruta.</li> <li>Urtebetetzeetan litxarkerien ordeztu etxean egindako gailera eta pastela ekarriko dute</li> <li>Erosketak egiterakoan herriko dendetan bertako produktuak aukeratu dituzte.</li> <li>Datorren ikasturtean orain artean EA21 proiektuan landu dituzten gai guztiak errepatatu dituzte aurreko urteetan hartutako konpromisoak mantenduz.</li> </ul>

ESKOLEN ARTEKO UDAL FOROA. IGORRE 13-06-19		
IKASTETXEA	PROPOSAMENAK	KONPROMISOAK
UGARANA IKASTETXEA	<ul style="list-style-type: none"> <li>Bertako ekoizleei elikagai ekologikoak eta bertako produktuak herrian saltzeko aukerak eskaintzea eta azokak antolatzea.</li> <li>Eskolan baratza jartzeko bitartekoak jartzea. Negutegia amaitzeko plastikoa.</li> <li>Eskolako baratzaren inguruan fruta arbolak jartzea.</li> <li>Energia berriztagarriak ekoizteko erraztasunak eman, ura aurrezteko sistemak aztertu eta ezartzea.</li> <li>Bizikletak aparkatzeko alanbrea kokatzea.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>kontsumo arduratsua.</li> <li>Hondakinak bereizte eta birziklatzea.</li> <li>Ur eta energia kontsumo arduratsua</li> <li>Bertako elikagaien aldeko apustua egin.</li> </ul>

## 8.2. Dimako udal foroan ikasleek alkateari egindako proposamenak (13-06-12)

*Oharra:* Ikasturte honetan proposamen berriak egin beharrean aurreko ikasturteko proposamenen jarraipena egiten dute Udalarekin batera eta hauek dira emaitzak:

DIMAKO UGARANA 2012-2013 IKASTURTEKO ESKAERAK	
11-12 IKASTURTEKO PROPOSAMENEN JARRAIPENA	12-13 IKASTURTEKO UDAL FOROAN ALKATEAREN ERANTZUNA
<ul style="list-style-type: none"> <li>•Eskolan baratza jartzeko bitartekoak jartzea.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>•Ikasleek ortua martxan dute, negutegiko plastikoa jartzea baino ez da falta. URA-ren erantzunaren zain egon direnez atzeratu egin da.</li> </ul>
<ul style="list-style-type: none"> <li>•Fruta arbolak landatu</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>•Eguraldi txarra egin duenez ez dira landatu orain arte. Egiteko asmoa dago, ortuaren ondoan.</li> </ul>
<ul style="list-style-type: none"> <li>•Bizikletak aparkatzeko alanbrea jarri</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>•Datorren ikasturterako ipintzeko konpromisoa hartzen du udalak</li> </ul>
<ul style="list-style-type: none"> <li>•Bertako baserritarrei erraztasunak jarri beraien produktuak ekoiztu eta saltzeko.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>•IGITIE taldea sustatzen da Udaletik</li> </ul>
<ul style="list-style-type: none"> <li>•Herriko berdegune edo lurretan ortuak ipini ahal izateko herritarrei lur sailak ixtea.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>•IGITIE taldea sustatzen da Udaletik</li> </ul>

DIMAKO UGARANA 2012-2013 IKASTURTEKO ESKAERAK	
11-12 IKASTURTEKO PROPOSAMENEN JARRAIPENA	12-13 IKASTURTEKO UDAL FOROAN ALKATEAREN ERANTZUNA
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Bertako ekoizleei elikagai ekologikoak eta bertako produktuak herrian saltzeko aukerak eskaintzea eta azokak antolatzea.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• IGITIE taldea sustatzen da Udaletik</li> </ul>
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Herriko dendetan bertako produktuak saltzeko aukerak handitzeko laguntzak bideratzea</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• IGITIE taldea sustatzen da Udaletik</li> </ul>
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Bertako produktoreen eta herritarren arteko foroak sortzeko bitartekoak eskaini.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• IGITIE taldea sustatzen da Udaletik</li> </ul>
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Kontsumo ohiturak aldatzeko kanpainak egitea.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Elikadura osasuntsuari buruzko hitzaldia egun hartan izan dute.</li> </ul>
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Eskolako jantokia beste era batera kudeatzeko (bertako produktuak eta abar). Aukerak aztertu eskola komunitatearekin.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• IGITIE taldea sustatzen da Udaletik</li> </ul>

### 8.3. Igorreko udal foroan ikasleek alkateari egindako proposamenak (13-06-19)

2012-2013 IKASTURTEKO ESKAERAK	
IKASTETXEEN PROPOSAMENAK ETA ESKAERAK	ALKATEAREN ERANTZUNA
<b>IGNACIO ZUBIZARRETA IKASTETXEA</b>	
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Dendetan leku bat utzi bertako produktuak kokatzeko.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Mota honetako ekimenak IGITIE taldea sustatzen ari da. Bilerak izan dituzte Udalarekin eta Udala ahal duen neurrian kolaboratzen ari da.</li> </ul>
<ul style="list-style-type: none"> <li>• EA21 jaia antolatzean Udalaren laguntza izatea (frutak, e.a. erosteko).</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Udalak Arratiako Mankomunitatearen bitartez bideratzen ditu laguntza hauek eta guztiz prest azaltzen da behar den neurrian laguntzeko.</li> </ul>
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Herrian zehar antzinako ibilbideak berreskuratu.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Dagoeneko ari dira antzinako bide batzuk berreskuratzen, momentu honetan Lemoara bitarteko zati bat falta da proiektua gauzatzeko.</li> </ul>
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Artea eta Igorre bitartean bidegorria garatu.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Aurrez aipatutako antzinako bidearen berreskuratze proiektuak bidegorri bezala erabiltzeko aukera ere eskainiko du. Dimarako bidearekin lotzeko zati txiki bat faltako litzateke gauzatzeko eta Udalak proiektu aztertuta dauka.</li> </ul>
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Udalak Frackingaren aurkako jarrera azaltzea.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Igorreko Udalak Osoko Bilkuran dagoeneko onartu du mota honetako proiektuen aurkako jarrera.</li> </ul>

ARRATIAKO INSTITUTUA	
<ul style="list-style-type: none"> <li>Mugikortasun egunean elikadura gaiarekin lotuta herrian zerbait antolatu.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Proposamen hau kontuan izango du Udalak datorren urteko ekintzak antolatzerakoan.</li> </ul>
<ul style="list-style-type: none"> <li>Bertako produktuak promozionatu.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Mota honetako ekimenak IGITIE taldea sustatzen ari da. Bilerak izan dituzte Udalarekin eta Udala ahal duen neurrian kolaboratzen ari da.</li> </ul>

## 9. EKAINA: IKASTURTE AMAIERA!

Zaratamoko azken koordinazio batzarra egiten da eta bertan datorren ikasturterako **KONTSUMO OHITURA EGOKIAK** gaia jorratzea erabakitzen da.

**Ekainean ikasturte osoko ekintzen berri ematen duen Buletin Digitalaren alea helarazten zaio Iraunkortasun teknikariari**, ondoren Eskualdeko web orrian zintzilika dezan.



**Azken Memoria entregatzen zaio Iraunkortasun Teknikariari** eta honela ikasturteko eginkizun guztiak amaitutzat ematen ditugu.